

# EUSKARA MUNDU OSOAN ZEHAR:

Euskara ez da munduko hizkuntza erraldoi bat, baina guk pentsatu baino hizkuntza handiagoa da. Erreportaje honetan euskarari buruzko datu batzuk ikasiko dituzue, eta seguruenik gehienak ezezagunak izango dira zuretzat.

## 1- MUNDUKO MAPA KOLORETSUA:

### 1.1- KOKAPENA:

EH bi herrialdetan dago kokatua, alderik handiena Espainian eta beste guztia Frantzian.




Lehenengo zatia (ipar-EH) Frantzian dago. Bigarren zatia bi zatitan dago banatua, Euskadi eta Nafarroa.

### 1.2- BIZTANLE KOPURUA:

EH osoan 3.094.445 biztanle daude, horietatik biztanle gehien EAEn daude (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian) 2.181.919 pertsonarekin; Nafarroan, berriz, 652.526 pertsona eta Ipar EHN 260.000 pertsona. Horrek esan nahi du EHN biztanleria gehien kokatzen den lekua EAEn dela.

### 1.3- HIZKUNTZA GAITASUNA:

EHk 3.094.445ko biztanle kopurua du. Horietatik milioi batek dakite euskara, baina horietatik bakarrik gutxi batzuek erabiltzen dute beraien artean.




Zergatik beraien artean ez dute euskara hitz egiten? Bien ama hizkuntza bada? Hori da oraindik ez dakigun erantzuna.

**Informazio iturria:** Euskararen Datu Basea.

### 1.4- OFIZIALTASUNA:

Seguruenik, euskara munduan ez dela ezaguna eta desagertzeko zorian dagoela pentsatuko duzu, baina hau ikusi: bazenekien euskara hizkuntza ofizial bat dela jartzen dute adibidez Wikipedia.



ikusten duzun bezala hizkuntz ofizial bezala dago jarria euskara Wikipedian.

- EAEn ofiziala da.
- Nafarroan hizkuntza ofizial bat da.
- Ipar EH ez da ofiziala.

digute.

Erantzun horiek guztiak jakinda, ea arazoari buelta eman diezaiokegun.

## 2- ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN?

Bazenekien munduan 7.000 hizkuntza inguru zegoenik? Bai, hala da. Gehien hitz egiten diren hizkuntzak bakarrik 13 dira, eta euskara ez dago haien artean. Baina 0-10rainoko eskalan, 10ean txinera badago eta 0an azkenik desagertu den hizkuntza badago, non uste duzu dagoela euskara?

**Sartu hemen eta jakin!**

[Eskalaren jokoa.](#)

**400** hizkuntza daude munduan **1.000.000** baino **hiztun gehiago** dituztenak, eta euskara horien barruan dago.

**Informazio iturria:** Ethnologue

## 3- ZERGATIK IKUSTEN DUGU GURE BURUA HORREN TXIKI?

[Zergatik ikusten dugu geure burua horren txiki?](#)

Arrazoi guztiak bildu eta gero emaitza hauek lortu ditut:

- Dakitenak askotan ez dute hitz egiten.
- Herri txikia gara, eta hiztun gutxi ditugu.
- Beste hizkuntza handiagoekin konparatuta, oso txikiak gara.
- Jende askok ez du euskara erabiltzen.
- Desagertzen ari dela esaten

## 4- CALVET BAROMETROA:

Calvet Frantziako soziolinguista garrantzitsuenetariko bat da; orduan, berak esaten dituen datuak ez dira gezurra izango ezta?

Calvet-ek Euskara munduko 51. hizkuntza dela esaten du, 7.000 hizkuntzetatik 51.! Horretarako 11 faktore hartu ditu kontuan, eta interneten hizkuntzak duen presentzia garrantzitsua da. Ez gaude horren gaizki ezta? [Calvet barometroa.](#)

## 5- UNESCO-REN ARABERA EUSKARA:


Unescoren arabera 2.470 hizkuntza daude desagertzeko arriskuan mundu osoan.

[Euskararen egoera Unescoren arabera.](#)

**-Itziar Idiazabal** EHko irakaslearen: “Faktore asko hartu behar dira kontuan, baina bat da garrantzitsua, belaunaldien arteko transmisioa”

**- Hego EH:** Oso ona.

**- Ipar EH:** Txarra.



## 6- NOLA ATERA ARMAIRUTIK 500.000 EUSKALDUN:

Imanol Epelderen eskutik: Irakaslea eta YouTouberra.

[Imanol Epelderen bideoa](#)

Euskal Herrian bakarrik **200.000 dira euskal kultura kontsumitzen dutenak**, horregatik orain galdera...

Non daude beste 500.000 euskaldunak?

Aholku hauek ematen dizkigu Imanol Epelde YouTouber eta irakasleak:

- 1- Irakurri euskarazko liburuak.
- 2- Irakurri Berria egunkaria igandeetan.

## ONDORIOAK:

Proiektu honekin asko ikasi dut, eta oso polita iruditu zait, gure hizkuntza delako eta babestu eta ezagutu egin behar dugulako. Proiektu honek asko irakatsi dit, eta informazio ugari erakutsi dit, amaieran euskara pentsatzen genuena baina handiagoa da, eta horrek hizkuntza honekin aurrera jarraitzeko animatzen digu.

Hizkuntza gehiago eta askoz handiagoak izan harren, euskara gure hizkuntza da, eta txikitatik ahotik atera zaigun hizkuntza izan da; horregatik eta arrazoi askorengatik, euskara babestu behar dugu!

3- Euskarazko antzezlan bat ikustera joan.

4- Programatu telebista eta jarri ETB 1 lehena.

5- Instalatu Badok app-a, eta euskal musika entzun.

Ez da euskarako musika dena kaka mokordo bat izango ezta?

[https://www.youtube.com/playlist?list=PLAwhEEKBIS-53eDRp5bZsn8JGFwJAp4\\_L](https://www.youtube.com/playlist?list=PLAwhEEKBIS-53eDRp5bZsn8JGFwJAp4_L)

Hemen esteka bat duzue euskarazko musika famatu eta dibertigarri batzuekin.

Ea baten bat gustatzen zaizuen!

